



super amara
BAT
Bidasoa Atletiko Taldea

TXIKIEN XIII. GUADALUPE IGOERA

ARAUDIA

1. ARTIKULUA

Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeko eskualdeko atletismo elkarteak, Hondarribiko Udalaren laguntzarekin, XIII. Guadalupe Txikia antolatu du 2024ko abuztuaren 31ko **goizerako (12:30tan)**, larunbata. Txikienei zuzendutako lasterketa da eta Zumardiaren inguruan, harresiaren ondoan, ibilbide laua prestatu dugu Guadalupeko igoera lasterketa herrikoa baino lehen.

2. ARTIKULUA - PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan 1 eta 13 urte bitarteko edozein haurrek parte hartu ahal izango du. 2010 urtetik (hau barne) aurrera jaiotako haurrak. Txikienek beren gurasoek lagunduta irten ahal izango dute.

3. ARTIKULUA - INSKRIPZIOAK

Inskripzioak 2024/06/19an irekiko dira eta **erabat dohain** izango dira.

Inskripzioa on-line irekiko da helbide honetan: www.kirolprobak.com . On-line inskripzioak abuztuaren 30an itxiko dira (13:00tan) eta proba egingo den egun berean izena eman ahal izango da irteera puntuan (Zumardia, Harresilanda) dortsalak agortu ez badira.

4. ARTIKULUA - DORTSALAK JASOTZEA

Irteeran, 11.30etatik 12.30tara. Antolakuntzak abisatzen du hobe dela garaiz egitea gero ilaran egon beharrik ez izateko, lasterketak ezin dira atzeratu eta.

5. ARTIKULUA - LASTERKETEN ORDUTEGIA ETA DISTANTZIAK.

Haurren lasterketak ordu hauetan egingo dira: **12:30tan lehenengo lasterketa – 13tan azkenekoa.**
Lasterketa guztiak jarraian eta hurrengo ordenean: (partaidetzaren arabera aldatu ditzakegu)

- **12h30** Haurrak mistoa (2022-2023) 150 metro (gurasoekin)
- Haurrak mistoa (2020-2021) 150 metro (gurasoekin)
- Haurrak mistoa (2018-2019) 150 metro
- Aurrebenjaminak mistoa (2017) 200 metro
- Aurrebenjaminak mistoa (2016) 200 metro
- Benjaminak mistoa (2014-2015) 430 metro
- Alebinak mistoa (2012-2013) 860 metro
- Infantilak mistoa (2010-2011) 1300 metro

6. ARTIKULUA.- SARIAK.

Hamaiketako oparoa daraman poltsa SUPER AMARA-ren eskutik.

7. ARTIKULUA - IRUDI ESKUBIDEAK ETA DATUAK LAGATZEA

Parte hartzaile guztiek, izena ematen duten unetik, Araudi hau onartzen dute eta baimena ematen dute Bidasoa Atletiko Taldeak, bere kasa edo hirugarren erakunderen baten bitartez, izena ematen dutenenen datu pertsonalak eta proban zehar jasotako argazkiak, bideoak eta abar informatikoki erabil ditzan, kirola, sustapena edo alor komertziala soilik izango duen helburua lortzeko.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoak, ezartzen duen bezala, parte hartzaileak fitxategi horietan sartzeko eskubidea edukiko du bere edukia partzialki edo osorik zuzendu edo ezabatzeko. Eskubide hau erabiltzeko idatziz eskatu beharko du Bidasoa Atletiko Taldeak duen helbidean. (Ramon Iribarren kalea, 4 behea atzealdean, 20304 Irun)